



**BERTARATU GABE ARRETA
EMATEKO PLANA**

Osasun agintariak ikastetxeak erabat ixtea agintzen badute, bertan behera geratuko da irakaskuntza presentziala.

Momentu honetatik aurrera indarrean jarriko da **Bertaratu gabe arreta emateko plan** hau. Hori baino lehen, 3. egoera ezartzean txandaka ikastetxeko ikasle batzuek aktibatuko da.

Ikasturte hasieratik, 2. egoeran gaude eta lehentasuna du aurrez aurreko arreta emateak. Egoera honetan gauden bitartean, ikasleak etxean gelditu beharra izan ahal dute, PCRren zain edo PCRak positiboa eman duelako. Kasu horietan, familiek ikastetxera deitu beharko dute horren berri emateko. Zuzendaritza Taldeak informazioa bilduko du eta horren arabera, egunero, goizaren bukaeran, irakasle guztiei helaraziko die informazio hori, beraiek dagozkien ikasleekin kontaktuan jartzeko eta baloratzen duten moduan ikasle horien lana bideratzeko.

Online bidezko irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren kudeaketa

Online bidezko irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan irakasle nahiz ikasle guztiek hiru tresna nagusi izanen ditugu: Ikaskuntza Kudeatzeko Sistema (Classroom edo Moodle), Google Meet eta Asteko Lan Plangintza.

1. Komunikazio asinkronoa: Classroom edo beste Ikaskuntza Kudeatzeko Sistema (LMS)

Ikasturte hasieran irakasle guztiek Google Ikasgela edo Classroom plataforman (edo Moodlen) gela birtuala sortuko dute bere irakastalde guztietan. Tutoreek ere tutoretzarako gela birtuala sortuko dute. Classroom/Moodle plataforman argitaratuko dira ikasleek behar dituzten materialak eta egin beharreko lanak eta plataforma berean entregatuko dituzte ikasleek haien lanak. Pertsona guztiek plataformako erabileran irizpide berak izan ditzaten, kurtso hasieran irakasle zein ikasleekin zehaztuko dira.

Irakasleek plataforma horiei lotuta dauden mezularitzaren zerbitzuak (GMAIL, adibidez) bere lanaldiaren barne atendituko dituzte (8:30-15:30).

Era berean, ikasleek denbora tarte horretan jasoko dituzte irakasleek bidalitako mezuak.

2. Komunikazio sinkronoa: Google Meet

Irakasleek Google Meet bidezko saio birtualak (bideokonferentziak) antolatuta ahalko dituzte ikasleekin harremana mantentzeko, beharrezko azalpenak emateko edo zalantzak argitzeko. Meet bidezko saioen ordutegia Asteko Lan Plangintzan zehaztuko da. Ez da derrigorrezkoa izango Meet egunero egitea. Irakasle bakoitzak,

irakasgaireren eta taldearen izaera kontuan harturik, baloratuko du Meeten bidez egin behar diren saio horien maiztasuna.

3. Asteko lan plangintza

Ikasleek egin beharrekoa talde bakoitzerako sortuko diren tauletan izanen dute. Taula hauek ikastetxeko webgunean argitaratuko dira online bidezko irakaskuntzako asteetako lehen egunetan eta bertan adieraziko da zer egin behar duten irakasgai bakoitzeko saio/aste bakoitzean, noizko eta nola entregatu behar duten egin beharrekoa eta irakasgai bakoitzean noiz izanen den meet bidezko online saioa. Lan hori ebaluatu eta kalifikatuko da eta ebaluazioko notarako kontuan hartuko da.

Online bidezko irakaskuntzako egun bakoitzean egin beharrekoa beranduenez egun horretan goizeko 8:15erako adierazita egonen da. Aste osorako lana izanez gero, astelehenean ordu berean egonen da.

4. Ikasleen lanaren jarraipena

Online bidezko irakaskuntzan dauden ikasleen asteroko jarraipena egingen da. Horretarako ikastetxeko barne erabilerarako dokumentu bat egonen da. Bertan, hurrengo asteko asteleheneko 12:00ak baino lehen irakasleek ikasle bakoitzaren online bidezko irakaskuntzako asteko jarduna nolakoa izan den adieraziko dute.

Dokumentu honetan jasotakoaren arabera tutoreak (beharrezkoa ikusten duenean) dagokion familiarekin kontaktuan jarriko da, egoeraren berri emateko.

5. Azterketak

Joan den ekainean ikusi genuen moduan, Unibertsitatean sartzeko probak eta Hizkuntza Eskolako azterketak egin zituztenean, azterketak modu presentzian egin daitezke neurri sanitarioak zainduz.

Hori dela eta, gutxienez DBH 4 mailan, eta BATXILERGOan, azterketak modu presentzian egingo ditugu, eta gainontzkeo mailetan saiatuko gara. Horretarako Zuzendaritza Taldeak antolatuko du behar den egutegia eta ezarriko ditu behar diren neurri sanitarioak.

6. Komunikazio bideak

6.1. Ikasle eta irakasleen arteko komunikazio bideak

Ikasleek irakasleekin kontaktuan jartzeko bi bide izanen dituzte. Alde batetik izanen dituzten meet saioak eta bestetik, meet saiorik ez dagoen egun edo momentuetan, Classroomeko iruzkinak. Talde bakoitzean klase ematen duten

irakasle guztien izen abizenak eta kontaktuak dituen taulak webgunean argitaratuko dira denen eskuragarri egon daitezzen. Irakasleek ardura hartzen dute egun lektiboetan 24 orduren buruan erantzuteko.

Lehen esan dugun moduan, irakasleek bere lanaldiaren barne gauzatuko dituzte komunikazio horiek (8:30-15:30)

6.2. Ikasle eta tutorearen arteko komunikazio bideak

Irakasleekin bezala, tutorearekin kontaktuak jartzeko bi bide berak izanen dituzte. Alde batetik izanen dituzten meet saioak eta bestetik, meet saiorik ez dagoen egun edo momentuetan, Classroomeko iruzkinak. Tutoreen kontaktuak webgunean argitaratuko dira denen eskuragarri egon daitezzen.

6.3. Guraso eta tutoreen arteko komunikazio bideak

Arreta ez presentziala aktibatzen den momentutik aurrera, guraso eta tutoreen arteko komunikazioa telematikoa izanen da derrigorrez, email, telefono ala meet bidez. Tutoreen eta talde bakoitzean klase ematen duten irakasle guztien izen abizenak eta kontaktuak dituen taulak webgunean argitaratuko dira denen eskuragarri egon daitezzen.

Laugarren egoera indarrean jarri eta 15 eguneko epean tutoreek kontaktu bat izanen dute gutxienez familia bakoitzarekin, etxeko egoeraz galdetu eta ikaslea egoera berrira egokitzeko izaten ari den zailtasunen ala erraztasunen berri izateko. Ondoren, ikasleen jarraipen tauletan jasotakoaren arabera beharrezkoak ikusten dituen kontaktuak mantenduko ditu ikasle bakoitzaren gurasoekin.

Gurasoek, etxeko eta haien seme-alaben egoera hobekien ezagutuko duten pertsonak izanik, egokia ikusten duten aldiro tutorearekin email bidez kontaktuan jarri ahalko dira eta, beharrezkoa ikusten dutenean, telefono ala meet bidezko saioa adostu ahalko dute tutorearekin.

Egoera honetan tutoreek eta irakasleek egiten dituzten deiak dei ezkutu bidez eginen dituzte.

7. Webgunea

[Ikastetxeko webgunea](#)k prest dauka ikasleei [arreta telematikoa emateko planari lotutako atala](#). Bertan ikasleek eta familiek behar duten informazio guztia eskura izanen dute honako edukiekin:

- Lan plangintza
 - Asteko lan plangintza: aste horretan egin beharreko lanarekin
 - Aurreko asteetako lan plangintzak
- Komunikatuak: emailz ere bidaliko direnak.

- Gurasoentzat
- Ikasleentzat
- Aholkuak eta baliabideak
- Ebaluazio eta kalifikazio irizpideak: irakaskuntza presentzialekoak aldatuko balira hemen argitaratuko dira berriak.
- Odisea liburutegi digitalera esteka

8. Online bidezko ikaskuntzarako materialaren dotazioa

Kurtso hasieran, 4. egoera ezarriko den egoera hipotetikorako prest egon gaitezen, ikasleen artean etxe guztiak online bidezko irakaskuntza-ikaskuntza prozesua modu egokian aurrera eraman ahal izateko beharrezkoa izanen duten dotazioaren berri jasoko dugu. Horretarako kurtso hasieran honako informazioa jasoko dugu:

- DBH 4. mailako eta Batxillergoko zenbat ikaslek beharko zuten chromebook bat 4. egoeran
- Maila guztietako zenbat ikaslek badute konexio beharra irakaskuntza-ikaskuntza prozesua aurrera eraman ahal izateko.

9. Ebaluazio eta kalifikazio irizpideak

Bigarren eta hirugarren egoeran bermatuko dira aurrez aurreko azterketak ikasle guztientzat. Ikasleren bat konfinatuta egongo balitz azterketa egunetan, klasera itzultzerakoan irakaslearekin adostuko du noiz egin azterketa.

Laugarren egoerarako ebaluazio eta kalifikazio irizpideak aldatu ahalko dira. Horrela gertatzen den kasuetan familia eta ikasleei horren berri emanen zaie eta webgunean argitaratuko dira.

10. Irakasleen lan jarduna

Laugarren estenatokian zehar irakasleek, Hezkuntza Departamentuak kontrakoa esaten ez duen bitartean, haien jarduna etxetik aurrera eraman ahalko dute, Arreta digital ez presentzialeko plan honetan zehazten dena betetzen dutela bermatuz.

Irakasleek bete behar dituzten dokumentu guztiak irakasleendako [barne webgunean](#) astero argitaratuko dira eta honakoa jasoko dute:

- Hurrengo asteko lan plangintzako taulak: egun bakoitzean 8:15erako beteta egon behar du egun horretako lana.
- Aurreko asteko lan plangintzako taulak

- Ikasleen jarraipen taula: asteleheneko 12:00ak baino lehen aurreko astean ikasleek egindakoaren informazioarekin betetzeko.
- Astekako tutoretza plana
- Komunikazioak: zuzendaritza taldetik bidaltzen diren komunikazioak.
 - Familiei
 - Ikasleei
 - Irakasleei
- Hezkuntza Teknologien inguruko oharrak
 - Oharrak eta manualak
 - Zalantza teknikoak argitzeko formularioa

Ikasleak konfinamendu egoeran daudenean

1. eta 2. egoeretan zehar, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua modu presentzialean ematen den bitartean, gerta daiteke ikasleren bat edo batzuk denbora batez konfinatuta egon behar izatea. Egoera hori 10-11 egunez luzatzea da ohikoena. Epe horrek irauten duen bitartean eta ikasleen osasun egoerak ahalbidetzen badu, ikasleak euren ikaskideei egunean zehar egindakoa galdetzeaz arduratuko dira eta irakasleek Classroom plataforman argitaratuko dituzte ikasle hauek egin beharrekoak, ikaskuntza prozesuan atzean gelditu ez daitezen. Era berean, ikasleak lanen entregan epeak errespetatu beharko dituzte.

Hasieran esan dugun moduan, Zuzendaritza Taldeak informazioa bilduko du eta horren arabera, egunero, goizaren bukaeran, irakasle guztiei helaraziko die informazio hori, beraiek dagozkien ikasleekin kontaktuan jartzeko eta baloratzen duten moduan ikasle horien lana bideratzeko.